

# BID-REX

## Interreg Europe



European Union  
European Regional  
Development Fund

## BID-REX Euskadiko mintegia — INFORMAZIOA PREMIETARA EGOKITZEA

[www.euskadi.eus/bid-rex](http://www.euskadi.eus/bid-rex)

Gure ongizatea eta bizi kalitatea ondasun naturalean oinarritzen dira, hau da, biodibertsitatean, oinarritzko zerbitzuak eta ondasunak eskaintzen dituzten ekosistemak barne hartuta. Biodibertsitatearekin lotuta 2020rako aurreikusitako Europako eta munduko helburuak lortzeko, ekosistemen zerbitzuak eta biodibertsitatea hobeto ulertu behar ditugu, politika egokiak osatu ahal izateko. Interesdun askoren erabateko konpromisoa ere beharrezkoa da: **guztiok gara arazoaren eta soluzioaren parte.**

Ingurumena kontserbatu eta babestu ez ezik, baliabideen eraginkortasuna sustatzea ere bada [2020ko Ingurumeneko Esparru Programaren](#) lehentasunetako bat. Eusko Jaurlaritzak elementu transbertsal eta erabakigarri gisa txertatu du ingurumena, ongizateari, enplegua sortzeari eta ekonomia indartsu zein etorkizun handikoa garatzeari laguntzeko. . Horretarako, biodibertsitateari onurak ekartzen dizkion proiektuak ari da jartzen martxan, arlo horretan inpaktu negatiboak saihesten direla ziurtatzeko asmoz..

Naturaguneak eta biodibertsitatea babesteko politika egokiak sortzeak biodibertsitateari buruzko informazio koherentea, aproposa eta egituratua abian jartzea dakar; horrela, erabakiak hartu ahal izango dira. Horretarako, Europako beste eskualde batzuekin batera, “Biodibertsitateari buruzko datuetatik erabakietara: balio naturala hobetuta, eskualde garapeneko politika hobeen bidez” proiektuan ari gara lanean.

Proiektu honen helburua da balio naturala eskualde garapeneko politika hobeen bidez babestea, biodibertsitateari buruzko datuen eta kontserbazioari buruzko erabakiak hartzeko prozesuen arteko lotura sortuta/sendotuta. Zehazki, biodibertsitateari buruzko informazioaren bilketa eta erabilera erraztu nahi du, informazio egokia baliatuta erabakiak hartzeko prozesuak eskainita.

## Behar dugunetik daukagunera

Gai zehatzei erantzuteko eskura dugun informazio onena behar dugu:

- araudian eta dokumentu estrategikoetan ezarritako helburuak betetzea eta politikak ebaluatzea.
- Biodibertsitatearen (espezieak/habitatak) eta ekosistemen egoeraren (bizitasuna, erresilientzia eta produktibitatea) arteko erlazioa ulertzea, baita ekosistemen egoeraren eta hauek zerbitzu ekosistemikoak eskaintzeko duten gaitasunaren artekoa ere.
- funtsezko gai eta sektoretan iraganeko eta etorkizuneko aldaketak/joerak (egoerak/ereduak) ulertzea.

2017ko otsailaren 6an egin zen [lehen tailer parte-hartzailean](#) erabakiak hartzeko informazio-premien gaia aztertu genuen, eta Euskal Autonomia Erkidegoan esparru honek zituen alderdi sendoak eta ahulak ezagutu genituen.

Bigarren tailer honetan gauzak ondo egiten ari ote garen eta guk sortutako informazioak gure beharrei erantzuten ote dien ebaluatzen ahaleginduko gara. Abiapuntu gisa ahultasuna eta alderdi sendoak eta hobetzeko proposamenak hartuko ditugu, baita egindako [galdeketeran](#) eta [lehen tailerlean identifikatutakoak](#) ere.

## Eztabaidarako gaiak: Badago behar dugun informazioa? Nola lagundu informazioa eskuratzen eta erabiltzen?

- Informazio-sortzaileek ezagutzen dituzte administrazio publikoen informazio-premia zehatzak?
- Nork sortzen du eta non dago erabilgarria izan daitekeen informazioa? Nola ezagutu erabakiak hartzeko erabilgarria izan daitekeen informazioa sortzen duten pertsona, erakunde, jarduera eta proiektu nagusiak?
- Zer abiarazi behar da erabakiak hartzeko garaian eskura dagoen informazioa zuzenean/erraz erabili ahal izateko?
- Eskualde mailan nola kudeatu behar da ezagutza-sare bat modu eraginkorrean? Nola hobetu behar da sortzaileen, erabiltzaileen eta herri-administrazioen arteko

koordinazioa eta elkarlana? Bakoitzak zer eginkizun izan behar du? Nola erakarri behar dira pertsona eta erakunde garrantzitsuak?

- Zer egin behar da “informazio-hutsuneekin”? Nola lehenetsi datu berrien lorpena?
- Nola erabaki behar da premia bakoitzerako zein informazio den egokia?
- Informazioa eta datuak zaharkitzea
- Zer egin daiteke aditurik, taxonomorik edo belaunaldi-ordezkorik ez badago?
- Berrikuntza: Nola lortu behar da informazioa modu eraginkorragoan teknologia berriak erabiliz? Satelite-irudiak, sentsoreak, data mining, ...
- Nola zabaldu behar da biodibertsitateari buruzko informazioaren erabilera behar ez dutela uste duten agenteen artean?
- Nola ebalua dezakegu erabakiak hartzeko erabiltzen dugun informazioaren kalitatea?
- Nola gehitu dezakegu erabiltzaileen feedback-a informazio eskuragarria beharretara gero eta egokituagoa egotea lortzeko?

## Kasu-azterketa: Natura 2000 Sarea eta Natura babesteko zuzentarauekin lotutako beharrezko informazioa

Natura babesteko zuzentzarauen helburu da Europar Batasunean naturaren egoera ona bermatzea. Horretarako, kontserbazioaren ikuspuntutik interesgarriak diren habitat naturalak eta espezieak babesteko esparru bat sortuko da. Zuzentarauek biodibertsitate aberatsa duten munduko gunee babestuen sare koordinatu handiena finkatzen dute. Sareak Natura 2000 izena du, eta EBaren lurrazalaren % 18 eta bertako uren % 6 barne hartzen ditu. 1.500 animalia- eta landare-espezie inguru, eta gunee babestu horien barne eta horietatik kanpo komunak ez diren 200 habitat mota inguru babesten dituzte. Naturaren babesa eta lurraren eta jarduera ekonomikoaren erabilera iraunkorra nahasten ditu.

Natura 2000 sarea da Europaren esparruan biodibertsitatearen mantentzea bermatzeko tresna nagusia. Mantentze-lan hori habitat natural mota diferenteak eta basoko flora- eta fauna-espezieak kontserbatuz burutzen da.

Herri-administrazioen zein informazio-eragileen ikuspuntutik, oro har, Hegaztien eta Habitaten Zuzentzarauek eta Natura 2000 sarea betetzeak eskatzen dituen informazio-obligazioak betetzeko zailtasunen inguruan gogoeta egitea da kontua. Honela laburtzen dira:

- Ezinbesteko minimoa gunee tarako da, formalki lurralde osoa zaindu beharko bagenu ere.
- Informazioko beharrak eta datuak nola egokitu erantzunak eman behar ditugun eskalara: eskualdeko eskalara, eskala biogeografikora, espazio bakoitzera,...
- Batasunaren Intereseko Habitat moten eta Natura 2000 Sareko espezieen inbentarioa:
  - habitatak:

- habitat-motak barne hartutako lekuaren azalera —absolutua eta portzentajezkoa—, eta beste habitat mota batekin lotuta dagoen adierazi.
    - habitat bakoitzean dauden ohiko espezieen zerrenda.
    - egitura eta funtzioa
  - espezieak:
    - euren populazioari buruzko datuak
    - espezieen habitatari buruz interesgarritzat jotzen den informazio espezifikoa
- Eskualde mailan interesa duten espezieen eta habitaten inbentarioa
- Natura 2000 Sareko Espezieen eta Batasunaren eta eskualde mailako Intereseko Habitat moten balorazioa
  - Erreferentziako Azalera Onuragarriari (EAO) buruzko informazioa, Batasunaren Intereseko Habitat moten kasuan; eta Erreferentziako Populazio Onuragarriari (EPO) buruzko informazioa, Batasunaren Intereseko Espezieen kasuan.
  - Kontserbazio-egoeraren ebaluazioa, etorkizunari begirako aukerak.
- Natura 2000 Sareko Espezieen, eta Batasunaren eta eskualde mailako Intereseko Habitat moten kartografia
- Prozesu ekologikoak eta ingurumen-zerbitzuak
- Kontserbatzeko beharrezkoak diren erabilerak
- Presioen eta mehatxuen deskribapena, eta kausa-efektu erlazioak, inpaktuen kartografia
- Segimendu- eta ebaluazio-sistema:
  - finkatutako ekintzen eta neurrien eraginkortasuna eta gauzatze-maila. Kudeaketa-adierazleak. Espazio edo espazio moten eskalara
  - Natura 2000 espazioetako espezieen eta habitataren kontserbazio-egoerak eta banaketak nola eboluzionatzen duten. Zehaztu beharreko eskala

## ERREFERENTZIAK

- 2011-2020 Dibertsitate Biologikorako Plan Estrategikoa
  - Nagoyan 2010ean Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmenean Aldeek onartuta, datorren hamarkadan dibertsitate biologikoa babesten interesa duten aldeek eta herrialde guztiek eskala handiko ekintzak eragiteko helburuarekin.
  - Ekiteko premiazko beharra aitortuta, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2011-2020 hamarkada, **Dibertsitate Biologikorako Nazio Batuen Hamarkada** deklaratu du.
  - [Biodibertsitate biologikorako Aichiko helburuak](#)
    - E helburu estrategikoa: aplikazioa hobetzea, parte-hartze plangintzaren, ezagutzen kudeaketaren eta gaitasunaren sorkuntzaren bitartez.
      - 19. helmuga: 2020rako, dibertsitate biologikoari buruzko ezagutzetan, oinarri zientifikoan eta teknologietan, haren balioetan eta funtzionamenduan, egoeran eta joeretan, eta haren galeraren

ondorioetan aurrera egingo da. Halaber, ezagutza eta teknologia horiek asko partekatu, transferitu eta aplikatuko dira.

- A helburu estrategikoa: dibertsitate biologikoaren galearen azpian dauden zergatiei ekitea, gobernu eta gizarte osoari dibertsitate biologikoa erantsiz.
  - 1. helmuga: 2020. urterako, beranduen jota, dibertsitate biologikoaren balioaz, eta bere kontserbazio eta erabilera iraunkorrerako eman ditzaketen urratsez jabetuko dira pertsonak.
- [2010ERA KO ETA AURRERAGORAKO BIODIBERTSITATE GALERA GELDITU. Giza ongizatearentzako ekosistemen zerbitzuak babestu \(2006\)](#)
  - EBan eta munduan biodibertsitatearen erabilera iraunkorrerako eta kontserbaziorako ezagutzen oinarria funtsean indartzea.
- [2020ra arte biodibertsitateari buruzko EBaren estrategia: gure bizi aseguru eta kapital naturala \(2011\)](#)
  - Aplikazio maila guztietan gizarte zibilaren parte-hartze aktiboa sustatuko da.
  - Herritarren ekimen zientifikoak, adibidez, baliabide preziatua dira kalitatezko datuak biltzeko eta, aldi berean, biodibertsitatea kontserbatzeko jardueretan parte hartzera herritarrak mugiarazteko.
  - 3. jarduketa: Interesdunak sentzibilizatzea eta nahastea, eta araudia betearazteko mekanismoak hobetzea.
  - 4. jarduketa: Zaintza eta informazioa hobetzea eta arrazionalizatzea
  - 5. jarduketa: Ekosistemen eta ekosistema-zerbitzuen ezagutza hobetzea EBan.
- [7 Batasunaren Ekintza Programa Orokorra Ingurumenaren arloan 2020ra arte «Ondo bizi, gure planetaren mugak errespetatuz» \(2013\)](#)
  - 1. helburu nagusia: Batasunaren kapital naturala babestea, kontserbatzea eta hobetzea
    - Batasunaren kapital naturala babesteko, kontserbatzeko eta hobetzeko Batasunaren informazio publikoaren hornidura, herritarren kontzientziazioa eta ingurumenaren arloan haien heziketa indartu behar dira.
  - 5. helburu nagusia: ingurumenari buruzko Batasunaren politikaren inguruko ezagutzen eta informazioaren oinarria hobetzea
    - Ingurumenari buruzko Batasunaren politikaren inguruko ezagutzen eta informazioaren oinarria hobetzeko, VII. IEPak bermatuko du, 2020. urterako, zientzia-politika interfazea sendotuta egotea; bereziki, herritarrentzako datuen eskuragarritasunari eta herritar zientziaren ekarpenari dagokienean.
- [Euskal Autonomia Erkidegoko 2030erako Biodibertsitate Estrategia](#)
  - 3. helmuga: Naturaren ezagutza eta kultura sustatzea

- NATURA 2000 SAREAREN KONTSERBAZIO ILDO NAGUSIAK ESPAINIAN  
[http://www.mapama.gob.es/es/biodiversidad/temas/espacios-prottegidos/doc\\_n2000\\_directrices\\_conserv\\_tcm7-171818.pdf](http://www.mapama.gob.es/es/biodiversidad/temas/espacios-prottegidos/doc_n2000_directrices_conserv_tcm7-171818.pdf)
  - Espezie mehatxatuen eta babes berezia dutenen kontserbazio-egoera zaintzeko eta ebaluatzeko ildo nagusiak
  - [http://www.mapama.gob.es/es/biodiversidad/temas/conservacion-de-especies/doc\\_directrices\\_vigilancia\\_evaluacion\\_v10\\_tcm7-336433.pdf](http://www.mapama.gob.es/es/biodiversidad/temas/conservacion-de-especies/doc_directrices_vigilancia_evaluacion_v10_tcm7-336433.pdf)
  - Reference Portal for Natura 2000  
[http://bd.eionet.europa.eu/activities/Natura\\_2000/reference\\_portal](http://bd.eionet.europa.eu/activities/Natura_2000/reference_portal)
  - Reference material for the reporting period 2007-2012 under the Article 17 of the Habitats Directive  
[http://bd.eionet.europa.eu/activities/Reporting/Article\\_17/reference\\_portal](http://bd.eionet.europa.eu/activities/Reporting/Article_17/reference_portal)
  - Reference Portal for reporting under the Article 12 of the Birds Directive  
[http://bd.eionet.europa.eu/activities/Reporting/Article\\_12/reference\\_portal](http://bd.eionet.europa.eu/activities/Reporting/Article_12/reference_portal)
- BATZORDEAREN KOMUNIKAZIOA EUROPAKO PARLAMENTUARI,  
KONTSEILUARI, EKONOMIA ETA GIZARTE LANTALDEARI ETA  
ESKUALDEEN LANTALDEARI. [Naturaren, pertsonen eta ekonomiaren  
aldeko ekintza-plan bat](#)